



## INTERES-GATAZKAK KUDEATZEKO POLITIKA

Interes-gatazkak kudeatzeko Kutxabanken politikaren helburua, inbertsio-zerbitzuak ematearekin edo balore-merkatuekin zerikusia duten balizko interes-gatazken kudeaketa arautzea da. Gatazka horiek Kutxabank eta bere bezeroen artean sor litezke edo bere bezeroen artean, eta haien kaltetan izan daitezke.

Politika hau honako hauei ezarriko zaie: (i) Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko eta Goi Mailako Zuzendaritzako kideei ; (ii) Kutxabankeko Batzordeetako kideei, zuzendaritzakoei, langileei eta ahaldunei, euren zeregina, zuzenean edo zeharka, Kutxabankek balore merkatuen arloan eta inbertsio-zerbitzuen arloan duen jarduerarekin lotuta dagoenean; (aurrerantzean, "Pertsona Eskudunak").

Interes-gatazka sortu dela ulertuko da, Kutxabankek edo Pertsona Eskudunek:

- (a) Finantza mozkina lor dezaketenean edo finantza galera bat ekidin, bezeroaren kontura;
- (b) Bezeroari eman zaion zerbitzu baten emaitzan edo bezeroaren kontura egindako eragiketa baten emaitzan interesa dutenean eta interes hori ez datorrenean bat bezeroak berak duenarekin;
- (c) Finantza pizgarriak edo beste mota batekoak dituztenean, beste bezero edo bezero talde baten interesak bultzatzeko, lehenengo bezeroaren interesen aldean;
- (d) Bezeroak duen jardun bera dutenean;
- (e) Bezeroa ez den beste pertsona batetik pizgarria jasotzen badute edo jasoko badute, bezeroari eman dioten zerbitzu batekin zerikusia duena, dirutan, ondasunetan edo zerbitzutan, aipatutako zerbitzu horrek duen ohiko komisioa edo ordainsariaz gain.

### **Interes-gatazkak identifikatzea eta erregistratzea**

Kutxabank, pertsona eskudunei interes-gatazken identifikazioa errazteko helburuz, gatazka hauek sor litezkeen egoeren zerrenda du eginda, eta bakoitzari ezar dakizkiokeen kudeaketa neurriak.

Gainera, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera, bezeroen interesetan kalte esanguratsua sortu duten edo sor lezaketan interes-gatazka izan duten edo izan lezaketan inbertsio inguruabarren eta zerbitzuen errolda eguneratua mantenduko du Kutxabankek.



### **Interes-gatazkak kudeatzeko irizpide orokorrak**

Pertsona Eskudunek jokaera printzipio orokor diren heinean, honako hauek onartuko dituzte, onestasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jokatzeari, bezeroen interes onenerako. Pertsona Eskudunek ez dituzte bezero baten edo bezero talde baten interesak bultzatuko beste batzuenen aurrean, eta tratua bera emango diete bezero guztiei.

Kutxabankek identifikatutako interes-gatazkak kudeatzeko beharrezko neurriak ezartzen ditu Politikak. Neurrien helburua honako hau izango da, Bezeroei inbertsio-zerbitzuak ematean, Pertsona Eskudunek onestasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jokatzeko printzipio orokorrak betetzea izango dutela bermatzea.

### **Politika berrikustea**

Politika urtean behin berrikusiko du Araudia Betetzea Atalak.

### **Interes-gatazkak bezeroari jakinaraztea**

Interes-gatazkak kudeatzeko ezarritako neurriak, Kutxabanken iritziz, bezeroa kaltetua izan dadin dagoen arriskua ekiditeko nahikoak ez diren egoeretan, Kutxabankek gatazkaren berri helarazi beharko dio, baita inbertsio-zerbitzuaren (zeinetan interes-gatazka sortu den) kontratazioaren gaineko erabakia hartzea ahalbidetuko dioten gainontzeko inguruabarrena ere.